# BEZEROAREKIN HARREMANA

Bezeroekin harremanean egoteko komunikabide erosoena gure web orria www.intelligentBT.com da. Hemen, gure korreo elektronikoa eskuragarri egongo da, intelligentBT@gmail.com dena, eta gure telefono zenbakia, 944001001 dena. Bertan gure komuna nola erabiltzen den, bere ezaugarriak esplikatzeko eta txip-a nola jartzen den azaltzeko aukera ematen ditugu.

Web orrian, alde batetik, bezeroak dituen kezkak edo zalantzak argitzeko bezeroarentzako zerbitzuaren atal bat daukagu. Bertan zenbait azlapen kezkak argitzeko aurkituko ditu, adibidez, produktua nola jartzen den zenbait bideo. Produktuaren jarraipena eta produktua fabrikazio akatsak izatekotan gurekin kontaktatu ahalko du bezeroak web orri honetatik. Bestetik, osasun aholkuak emango dituen informazioa atal bat egongo da: otordu osasuntsuei buruzko gomendioak, kirol gomendioak…



Web orrian eskaintzen ditugun erraztasunez aparte, mugikorrean instalatu daitekeen app-a eskaintzen diegu gure bezeroei, Intelligent BT-ren informazioaren ulermena errazteko eta beti eskuragarri izateko.

Pixkanaka Inteligent BT-ren funtzionamendua hobetzen joango gara, hau da, urteko balorazioa bidaliko dugu, eta pixarekin aztertu ahal diren ezaugarriak (adibidez, azukre falta) jakinaraziko diogu bezeroari, gure produktuak aztertu ditzakeen ezaugarriak jakiteko.

Korreoaren bidez bezeroari jakinaraziko zaie aplikazioari buruzko berri guztietaz, adibidez, produktuaren beherapenak badaude edo eguneratze berriak ateratzen badira.